

## AITA SANTU PAULO SEIGARRENAREN ILBURUA

(Merezi dau, ta orixegaitik euskeraz jarri dogu Aita Santuaren ilburuko, testamentu au. Iru zati lez ditu. Ta Paulo VI'garrenak bere eskuz eta letraz idatzita dago. Lenengoa, Aita Santutza artu ta urte bira lez egin eban; bigarrena, zeozer geituta, Castelgandolfo'n osotu eban, 1972'an; eta azkenez, lerro batzuk geitu eutsozan 1973-7-14'an).

Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean.

1) Eriotzearen misterioan josten ditut neure begiak, baita onek ondoren dakarren guztian, Kristoren argian be; onexek dau bakar-bakarrik guztia argitzen, eta beraz, uste on eta apalez dagit ilburuko au. Konturatzen naz misterio onek dauan egiaz, niretzat bada gaurko bizitza zeatzean dirdiratu da berau beti ta beti; eta onesten dot eriotza azpiratu ebana, illunpeak uxatu-azo ta argia agirian ipiñi euskulako.

Olan dala, eriotzearen aurrean, oraingo bizi onen banantze oso ta zeatzaren aurrean, naitaez ospatu bear ditut bizitza igarokor onen doai, zorialdi, edertasun eta alanbearrak: Eskerrak damotzudaz, Jauna, bizitzara dei egin zeustalako eta are geiago, kristau egiñik, bir-sortu ta bizitzearen osotasunerako bidean ipiñi ninduzulako.

Aldi berean, Jauna!, Zuk emondako bizitz-doaien ekarle ta bete-tzaille izan yatazanai eskerrak egin eta bedeinkatu bearrean aurkitzen naz: Bizitzan sar ninduenak, bedeinkatuak beitez nire guraso ononak!; ni azi ninduenak, ni maite izan, onez ornidu ta laguntza emon eustienak; irakatsi onez, eutsiz naiz biotz-berotasunez inguratu ninduenak, eta bardin uste onez, ontasunez, gizalegez, adiskidetasun eta zintzotasunez, txera maitekorrez bizkor-azo ninduenak. Esker onez ikusten dodaz, bai, nire bizi apalari jatorria, laguntza, arnasa, zen-

tzuna emon eutsoen berezko ta ezpirituzko artu-emonak. Zenbat doai, gauza eder ta baliotsu, zenbat itxaropide artu ditudan mundu onetan! Orain, eguna sortaldera doakidalarik, guztia amaitu ta lurreko drama zoragarri au urtuaz doanean, zelan, Jauna, Zuri eskerririk emon ez, giza-bizi-doaiaren ostean askoz goragokoa dan fede ta gratiazko doaiakaitik, ontan da-ta azken batean nire izate osoa aterpetzen? Zelan, Jauna!, zure ontasuna duinkiro goratu, mundura elduaz bat, Eleiz katolikuaren mundu ezin-esanezko onen atalkide egin bait ninduzun? Zelan eskerrak emon, Kristoren apaizgorako deia artu ta ortan azi ta ezia izan nintzan eta? Zelan nik Zuri eskerrak egin, arimen, anaien, gazteen, Jainkoaren erriaren zerbitzuan jarduteko poztasuna ta ikuspena emon zeustazalako, eta batez be egundo merezi bako Eleizearen zerbitzari izateko dedua ta ohorea, bereziki Erroma'n, Aita Santuaren ondoan, geroago Milan'en, San Ambrosio ta San Karlos'en aulkian, niretzat jasoegi ta txit itzalgarrian, eta azkenez, San Pedron aulki garai, eder ta deun-deunean? Jaunaren errukiak abestuko ditut betiren beti.

Agur eta bedeinkapena mundu ontako ibillaldian zear aurkitu dodazan guztiai, neure lankide izan ziranai, aolkulari ta adiskideai, askotxo izan dira-ta; baita onak eta eskuzabalak eta kutunak! Bedeinkatzen ditut nire zerbitzua artu ebenak, eta Jaunagan neure seme ta anai izan ziranak! Zuoi, Luis eta Frantzisko, neure odol eta ezpirituzko anaioi, eta zuoi guztioi, neure sendiko maite-maiteoi, egundo niri ezer eskatu ez ta nigandik be iñoiz lurreko mesederik izan ez dozuenoi, eta niretzat giza-oitura ta biotz-bero eztiz beti ulertu nozuenoi, eta batez be bizitz onetan geroko bizitzarako bidea billatzen betiro izan zarienoi, zurtasunez eta biotz-bero eztiz beti ulertu nozuenoi, eta batez be bizitz onetan geroko bizitzarako bidea billatzen lagundu daustazuenoi, bakea ta bedeinkapena damotzuedaz.

Eleizea ur-ur dodala, somatzen dot: O Eleiza santu, bakar, katolikulu ta apostoluena, ar egizu, neure agur eta bedeinkapenaz, neure biotz-barrutiko maitasunaren azken agintza.

Zuri, Erroma, Kepa Deunaren eta Kristoren ordezkariaren eleizbarrutia, Jainkoaren zerbitzarien azkenengo zerbitzari onek maite-maite zaituna, zuretzat, bai, nire bedeinkapenik aitakor eta beteena; zu, munduaren uri, gomutau zaituz beti-beti zeure dei ezkutuz, eta jakizu, giza-birtutez eta kistar fede, munduaren istoriak dirauenoi, zeure ezpirituzko elburu orokorrai erantzuna emoten.

Eta zuoi beste guztioi, gotzaingoan anai agurgarrioi, neure agurrik biotzkor eta adeitsuena. Zeuen ondoan nago fede berberean, goi-maitasun berberean, apostoluen itz-emote eta eginbear bardiñean, Barri Onari buruzko alkar zerbitzuan, Kristoren Eleizea azi ta ugaritu daiten, gizadi osoa zeruratu dadin. Apaiz, lekaide ta lekaime guztiai, gure ikastetxeetako ikasleai, kristiñau katoliku ta kistar zintzoai, gazteai, iltera doan Aita Santuaren bedeinkapena.

Eta baita, begirune ta esker-erakutsi bereziaz, kardenak jaun eta Erroma'ko eleiz-arduradun guztioi be: zuon aurrean, urragotik inguratzen nozuen ezker, zin-dagit aundikiro geure fedea, itxaropena azaltzen dot, eta itzalgaitza dan goi-maitasuna autortzen, letorkikedan eriotza Jainkoaren eskutik apal-apal artu ta Jaunaren erruki aundiari dei egiñaz, Andra Mariaren bitartekotasun samurra, aingeru ta santuena eskaturik, eta biotz zintzoen otoitzetan neure azken arnasa itxirik.

2) Neure ondasun guztien oiñordeko, Aulki Donea dot izentatzen. Adeizorrak, esker onak eta maitasunak beartzen nau ortara. Beerago jarten dodazan erabagiak geratzen dira ortik kanpo.

3) Ilburuko onen bete-erazle bedi neure idazkari berezia. Entzun bei onek Laterri-Idazkaritzaren kontsejua, gaur be oiñean daukaguzan eskubide, lege ta eleiz-oiturak gogotan izanik.

4) Mundu ontako gauzetaz au diñot: txiro ta beartsu il gura dot, onela arazo orrei buruzko gauza ta zeaztasun guztiak alik eta lauen egiñik.

Lur eta esku-ondasunak, neure-neureak diranak, aurrerantzean be familikoak izango dira; neure anai Luis eta Frantziskoren eskuetan geratzen dira, euroi ondoen deritxen legez erabagi ta eratu dagiezan. Neure onerako ta geure ildakoen alde arimakari ta otoitz batzuk, eskatzen dautsedaz. Limosna batzuk be egin dagiezala, bear izanean dagozanentzako eta ekintza onetarako. Orreintzako ar begie, eta emon, gomutagarriren batzuk, euron eritxiz merezi ta eurok nai dabezana, neure-neure diran ontasunetatiko gauza naiz izaki onak, naiz liburuak. Ondatu beiez, ostera, nire oarrak, ingurraztiak, esku-titzak eta neure-neureak diran beste idatzi batzuk.

Nireak legez artu leikezan beste gauzetaz erabagi dagiala, ilburuko onen betetzaille danez, neure idazkari bereziak, beretzat be oroi-garriren bat gorde ta pertsona adiskideai gauza txikiren bat, gomutaki lez, emonik. Bene-benetan eskertuko neuke, nik eskuz egin ditudan

idatzi ta oarrak ezereztuak ba'litaz. Ixilezko kartak, gogozko ta bereziak, erre beiz oso-osoa, besteen ezautze ta jakiterako ez diranak beintzat.

Au eziña ba'litzakio ilburukoaren bete-erazleari, Laterriko Idazkariak izango dau orren ardurea.

5) Biziro opa dodan lez, il-otoitz eta eleiztarren limosnetarako bear diran erabagiak, al dala, bitez egoki ta ondo artuak. Illetak barrukoia beitez eta lau-lauak (ezpei erabil Aita Santuen illetetan erabilli oi dan il-tronurik, onen orde bestelanda bako ta era onagoko zerbait arturik).

Lur-gaiñean gura neuke neure illobia, kristauen onerako litzakent idazkun apal bategaz. Ez dot ezertariko oroigallurik gura.

6) Eta mundu au itxi ta Jainkoaren aurrerako, epairako bidea artzerakoan, ainbat eta ainbat gauza esan bearko neukez. Eleizearen egoerari buruz: entzun, otoi, guri itzen bat orretaz, bene-benetan eta maitasunez diñokegun zerbait. Eleiz Batzarraz, egin alegiñak beara azken onera eroaten, aren erabagi ta aginduak zintzo-zintzo beteaz. Ekumenismuari buruz, ekin lanari anai banatuak gero ta urrerago dakiguzan, alkar-artze berroz, eroapen aundiz, baiña katolikun irakatsi bearretatik okertu bage. Munduaz, ez daigula uste izan aren pentsakerak, oiturak, zaletasunak onartu ta eurokaz bat etorriarik, geiago laguntzen yakonik, bera ezagutu, maitatu ta zerbitzari leial izanik baiño.

Lur neketsu, izugarri ta eder onen gaiñean izten dodaz begiak, ostera be Jainkoaren ontasunera dei egiñik bere onerako. Guztiok bedeinkatzen ditut barriro be. Erroma, Milan eta Breszia batez be. Agur berezia neure bedeinkapenaz Lur Santuarentzat, Kristoren lurrarentzat, fedezko ta bakezko erromes nunbait bertan izan nintzan ne be ta.

Zeure eskuetan, Jauna, izten dot neure arnasa. Paulo VI'garrena. Erroman'ñ, Kepa Deunaren ondoan, 1965-6-30'an, geure Aita Santutzaren irugarren urtean».

\* \* \*

«Zure eskuetan, Jauna, izten dot neure arnasa. Eskerrak egiten dautsaz Jainkoari nire arimak. Maria, siñisten dot, itxaroten dot, maite, dot!, Kristo.

Neure esker onik beroenak on-egin daustien guztiai. Parka eskatzen dautset onik egin ez neutsenai. Danai damotset bakea Jaunagan. Agur dagitsot neure anai Luis txit maiteari, neuret guztiai, etxean ditudan guztiai, eskerrak, Laterriko Idazkariari, baitik bat.

Biotz-berotasun apartekoz bedeinkatzen ditut Breszia, Milan, Erroma, Eleiza oso-osoa. «Bai maitagarriak, Jauna, zure egonlekuak!».

Daukagun guztia bedi, erentziz, Aulki Santuarentzat. Nire idazkari onak, Paskuale Macchi laztanak, erabagi ta ebatzi be il-otoitz eta limosnaren bat egitea, baita maitegarri ditun pertsonai gomutaki batzuk banandutea be, neure liburu ta gauzetatik aintuzen.

Ez dot gura obi berezirik.

Bai, ostera, otoitz batzuk Jainkoak bere errukitasunean ar nadin.

Zugan, Jauna, itxaron dot. Olantxe. Aleluia!

Guztioi, neure onspena Jaunaren izenean.

Paulo VI'garrena, Castelgandolfo'n, 1973-7-16'an».

\* \* \*

«Alik eta soil lauenak izan daitezala niretzako illetak: orixe opa dot. Ez dot nai obi berezirik, ezta ezertariko oroigallurik be. Laguntzaren bat bakar-bakarrik (on-egiteak eta otoitzak). Paulo VI'garrena. 1973-7-14'an».

(X. Onaindia'k euskeratua)